

Jaqueline Idiart

• IPAR EUSKAL HERRIKO EMATZEN KOLEKTIBOKO KIDEA •

«Erabakiguneetarat heltzearekin aldaketa eragitea espero dugu»

■ ■ ■ Ipar Euskal Herriko Emazteen Kolektiboak, Mundu Guztiko Emazteen Martxan parte hartuko du. ■ ■ ■ Martxoaren 4an, forum bat antolatu zuten Baionar Emazteak, eta Boterea gaiaren inguruan. ■ ■ ■ Gaur, elgarretaratze baten eta film erakusketa baten eztabaida bat egingen da Baionako Atalante zinegelan.



BOB EDME

■ **Martxaren bidez, Euskal Herriko Emazteen Kolektiboak ere salatzen du emazteak jotzen duen pobrezia?**

Frantzia aipatzekotan, adibidez, badakigu pobrezia eta berezikiago lan munduan, emazteak direla gehien hunkiak. Alabaina, hilabeteka 3.600 libera (90.000 pezeta) baino gutiago hunkitzen duten jendeetan, %60 emazteak dira. Gero, Martxa aipatzekotan, mundu osoko egoeraz mintzatu behar da. Oro har, munduan, pobreen artean, emazteak dira gehien hunkiak, bereziki Afrikan, Hego Amerikan eta Asian. Era berean, azpimarratu behar da emazteak direla gerla egoerak larrien pairatzen dituztenak: etxebizitzak galtzen dituzte, janaria moztua zaie... Emazteei ere

lotzen dira zuzenki haurrak. Frantzian, adibidez, guraso bakarra duten familietan haurrarekin bakarrik geldit

zen dena gehien-gehienetan ama edo emaztea da.

■ **Bortizkeria ere zuzenean jasaten dute emazteek.**

Hemen jasaten diren bortizkeriak, munduan zehar emazte batzuek jasaten dituzten asmaezinekin kon-

Mundu Guztiko Emazteen Martxa

POBREZIAREN kontra, aberastasunen banatzearen alde, emazteei egiten den indarkeriaren kontra, emazteen gorputz eta gogoaren errespetu osoaren alde, martxa bat egiten ari da mundu osoan zehar. Baionan ere zenbait ekitaldi izanen dira, Ipar Euskal Herriko Emazteen Kolektiboak antolatuak. Martxoaren 4an, Polo Beyriz auzoko Mouvement de la Vie Citoyenne gelan, forum bat egin zen Emazteak eta Boterea gaiaren inguruan. Emazteek historian berdintasunaren bidean eraman eta eramaten duten «martxa luzearen» aurkezpen batekin hasi zen. Gero, Annie Guillemet Akitania eskualdeko kontseilaria eta Jone Gorizelaia EAEko Legebiltzarreko

hautetsia mintzatu ziren. Bestalde, Perrine Durendeu kazetariak eta ondotik emazte ginekologo batek hitz egin zuten. Gaur, Baionako Place de la Liberté plazan, arratsaldeko 18:30etan, elgarretaratze bat antolatu du Kolektiboak, eta «ekintza sorpresa» bat ere izanen da. 20:30etan, Baionako Atalante zinegelan, Herri horretan Lidia Bobrova-k Errusiako herri baten biziaz egin filma erakutsiko da, eta ondotik *T'entends comment tu parles à ta femme!* (Entzuten duk nola mintzo hatzaion hire emazteari!) film laburra. Ondotik, emazteek jasaten dituzten indarkeriaz lanak egindako Murielle Roblin-ekin eztabaida bat iraganen da.

Portzentaiak

«Frantzian hilabeteka 3.600 libera (90.000 pezeta inguru) baino gutiago hunkitzen duten jendeetan, %60 emazteak dira»

Salaketa

«Lehen ere gertatuko ziren kasuak, baina ziurrenik orain gehiago aipatzen da. Gizarte mailan, badira oraino emazte batzuk erraten dutenak ez direla bakarrik jalgitzen ahal»

paratzen badira, iduritzen zaigu tipiagoak direla munduan zehar emazte batzuek jasaten dituzten asmaezinekin konparatzen badira. Indarkeria hori etxeetan bizitzen diren emazte eta amen artean ikusten dugu, senar edo bizilagunarekilako hartu-emanetan. Lan munduan ere, ohartzen gara bortxaketa sexualak jasaten dituzten emazteak gero eta gehiago mintzatzen direla, baina arazoa da ez dela legerik hori zuzentzeko. Lehen ere gertatuko ziren horrelako kasuak, baina ziurrenik orain gehiago aipatzen da. Gizarte mailan, badira oraino emazte batzuk erraten dutenak ez direla bakarrik jalgitzen ahal.

Agerian da, bestalde, zenbait herritan erlijioaren eraginez zapalkuntzak jasaten dituzten emazteak badaudela: kanporat edo karrikara ateratzeko baimenik ez dutenak edo bortxaz ezkontaraziak. 1995. urtean, munduko emazteen elgarretaratze handi hartarat joan ginenean, ikusi genituen emazteak zapi batek begitartea gordetzen edo kukutzen ziotela. Batzuek diote kulturala dela, baina haiekin batera ikusi genituen zaintzeko etorriak ziren erlijio gizonak. Hala ere, erran behar da badirela